

Neure Bizitza¹

DAVID HUME

(My Own Life)

Zaila da gizon batentzat luze hitz egitea bere buruaz harrotasunik gabe; beraz, labur egingo dut. Harrotasunaren erakusle gisa har daiteke ni neure bizitzaz idazten saiatzea ere, baina narrazio honek neure idatzien historiatik at gauza gutxi izango du; izan ere, ia neure bizitza osoa idazte lan eta okupazioetan eman dut. Nire idatzi gehienien lehen lorpena ez zen harrotasunaren motibo izateko lain.

1711ko apirilaren 26an jaio nintzen, era zaharrean, Edinburgon. Familia onekoa nintzen, bai aitaren eta bai amaren aldetik: nire aitaren familia Homeko, edo Humeko, Kondearen adar batekoa da; eta neure arbasoak gaur nire anaiaren jabetzako den etxadi baten jabeak izan ziren belaunaldi batzuetan zehar. Nire ama Sir David Falconer Justizia Kolegioaren Presidentearen alaba zen: Lord Halkerton titulua bere anaiaren oinordekoz heldu zitzaion.

Nire familia, ordea, ez zen aberatsa eta, neu anaiarik gazteena nintzenez, nire ondasuna, neure herriko ohituraren arabera, oso eskasa zen, jakina. Nire aita, eskuzabala omen zena, haur nintzela hil zen, eta ni baino anaia zaharra-goarekin eta arrebarekin geratu nintzen, geure amaren zaintzapean. Hura meritu bereziko emakumea zen, eta, gaztea eta ederra izan arren, bere haurrak haztera eta heztera dedikatu zen osoki. Arrakastaz egin nuen ohiko hezkuntzaren bidea, eta oso goiz literaturaren aldeko pasioak hartu ninduen, nire bizitzako pasio nagusia eta nire atseginen iturri handia. Estudiorako nire disposizioa, seriotasuna eta lan zaletasuna medio, nire familiak pentsatu zuen niretzako lanbide egokia zuzenbidea zela, baina filosofia eta jakintza orokorreko helburuetatik at zegoen guztiak kontrako gogo gaindiezina eragiten zidala ohartu nintzen; eta familiakoek beren burutazioak zituzten bitartean, nik xehetasunez aztertzen nituen Voet eta Vinnio, eta Zizero eta Virgilio ziren nik isilpean irensten nituen autoreak.

Hala ere, nire ondasun eskasak horrelako bizimodua izateko aukera ematen ez zidanez eta neure erabateko dedikazioagatik osasuna zertxobait ahul-

¹ Itzulpen hau Jesus M. Larrazabalek egin du. *My Own Life* izenarekin Hume 1776ko apirilaren 18an idatzia, urte horretako abuztuaren 25ean hil ondoren 1777ko martxoan eman zen argitara Londresen, honako beste izen honekin: *The Life of David Hume, Esq. Written by Himself*.

dua nuenez, tentatua edo, areago, behartua sentitu nintzen bizitzako arlo aktiboago batean sartzeko saio txiki bat egitera. 1734an Bristolera joan nintzen, merkatari batzuentzako neure aldeko gomendioak nituela, baina hilabete gutxi barru ohartu nintzen egoera hori zeharo desegokia zela niretzat. Frantziarako bidea zeharkatu nuen, landa erretiroan neure estudioetan segitzeko asmoz; bertan etengabe eta arrakastaz segitu dudana bizitza egitasmoa finkatu nuen. Neure urritasun sakona nire ondasun eskasiaren arabera izatea erabaki nuen, neure independentzia egoki mantentzeko eta edozein gauza mespretxagarritzat jotzeko, literaturarako neure dohainen hobetzea salbu.

Frantziako nire erretiroan, lehenik Reimsen, baina gehienbat Anjouko La Flèche, neure *Giza Naturari buruzko Tratatu* idatzi nuen. Herri hartan hiru urte oso atseginak igaro ondoren, Londresera bueltatu nintzen, 1737an. 1738ko bukaeran nire *Tratatu* eman nuen argitara, eta berehala neure ama eta anaiarengana joan nintzen, honen landetxean bizi baitziren biak, eta bere ondasuna hobetzen zentzuz eta arrakastaz jokatzeko ari baitzen anaia.

Ez da inoiz izan idazte saio zorigaitzokoagorik nire *Giza Naturari buruzko Tratatu*arena baino. *Inprentatik hilik jaioa* atera zen, ezaugarri hori ere jaso gabe, ezta fanatikoen artean murmuriorik sortzeko moduan ere. Baina izatez alaia eta optimista naizenez, oso azkar eman nion buelta kolpeari, eta neure estudioekin segitu nuen landan oso sutu. 1742an Edinburgon inprimatu nuen nire Saioen nire lehen zatia: lana begi oso onez ikusi zuten, eta aurretik izan nuen nahigabea berehala ahaztarazi zidan horrek. Neure ama eta anaia-ekin segitu nuen landan, eta orduan indarberritu nuen grekoaren jakintza, nire gaztaroaren hasieran gehiegi abandonatu nuena.

1745ean gutun bat jaso nuen Annandaleko Markesarengandik, Ingalaterrara bueltatu eta berarekin bizitzeko gonbidatuz. Ohartu nintzen, baita ere, gizon noble gazte horren familiakoak eta lagunak desiratzen zedela hura neure ardura eta zuzendaritzapean jartzeko, bere osasun eta adimen egoerak hori behar zuelako. Urtebete bizi izan nintzen berarekin. Garai hartako lanpostuek nire ondasun urria dezente handitu zuten. Orduan, St. Clair Jeneralaren gonbidapena jaso nuen, bere espedizioan haren idazkari izateko, lehenik Kanadaren aurka pentsatua zegoena, baina Frantziako itsasertzean sarraldi bat eginez burutu zena. Hurrengo urtean, 1747an alegia, Jeneralarengandik gonbitea jaso nuen postu berean zerbitzeko, Viena eta Torinoko gorteetan hark bete behar zuen enbaxada militarreko lanean. Han ofizialaren uniforme militarra jantzi nuen, eta gorte horietan jeneralaren «aid-de-camp» gisa aurkeztu ninduten Sir Harry Erskine eta Grant Kapitainarekin, gaur Grant Jenerala denarekin, batera. Nire bizitzan zehar, bi urte horiek izan ziren nire estudioetan egindako ia etenaldi bakarrak. Oso ondo pasa nituen urteok, lagunarte onean; eta nire lanpostuek, neurriko bizimoduarekin batera, ondasuna handitu zuten, independentea esateko modukoa izateraino, nahiz neure lagun gehienek

irribarrea egiten zuten hori nioenean. Labur esanda, orduan ia mila liberaren jabe nintzen.

Beti izan dut honako ideia hau: Giza Naturari buruzko Trataturia argitaratzerakoan desio izan nuen arrakasta gehiago zetorren lanaren formagatik gaia-rengatik baino; eta inprimatzera goizegi eramanez, oso ohiko den indiskrezioren baten errudun izan nintzen. Horregatik, lan horren lehen zatia birmoldatu egin nuen, Torinon nengoela argitara eman zen Giza Ulermenari buruzko Ikerketan. Lan hori Giza Naturari buruzko Trataturia baino zertxobait arrakastatsuagoa izan zen hasieran. Italiatik bueltan, Ingalaterra osoa zirrara bizian aurkitzeko zorigaitza izan nuen, Middleton Doktorearen «Ikerketa Librea» izeneko obra kausa zela; nire emaitza, berriz, batere aintzat hartu gabe eta zeharo ahaztua zegoen. Londresen nire Saio moral eta politikoen edizio berriak ez zuten harrera hoberik izan.

Nahigabe horiek eragin hutsa edo txikia izan zuten niregan, hainbatekoa baita berezko izaeraren indarra. 1749an buelta egin nuen, eta bi urtez neure anaiarekin bizi izan nintzen bere landetxean, ama ordurako hila zela. Han nire Saioen bigarren zatia osatu nuen, Diskurtso Politikoak izenarekin, eta baita Moralaren Printzipioei buruzko Ikerketa ere, neure trataturaren beste zati birmoldatu bat dena. Anartean, nire editore A. Millarrek jakinarazi zidan aurreko neure argitalpenak (guztiak Trataturia salbu) hizketa gai bihurtzen hasi zirela, eta salmenta pixkanaka gora zihoala, eta edizio berriak ere eskatzen zirela. Erreberendoen eta Erreberendisimoen erantzunak atera ziren, urteko bizpahiru. Warburton Doktorearen gaitzespena medio, nire liburuak lagunarte onean estimua lortzen hasi zirela jakin nuen. Haatik, inoiz inori ez erantzuteko deliberoa hartu nuen, inolako malgutasunik gabe eutsi dudana; eta neure izaeran oso haserrekorra ez naizenez, liskar literario guztietatik kanpora egotea erraza izan zait. Goranzko osparen sintoma horiek adorea eman zidaten, eta, ordutik, gauzen mesedeko alde kaltekoa baino gogoan areago hartzeko disposizio gehiago izan nuen; gogoaren aldaketa, urteko hamar mila liberako errenta ematen duen azienda batean jaioa izatea baino zoriontsuago egiten duena.

1751n landatik hirirako aldaketa egin nuen, hiria baita gizon letratu bati dagokion benetako ingurunea. 1752an, Edinburgoan —orduan han bizi nintzen—, eman ziren argitara nire Diskurtso Politikoak, lehen argitalpenetik arrakastatsu izan den nire obra bakarra. Ondo hartua izan zen kanpoan eta barruan. Urte berean, Londresen, nire Moralaren Printzipioei buruzko Ikerketa argitaratu zen; nire iritziz (gai honetaz juiziorik egin beharko ez nukeen arren) neure idazlan guztietatik, historiko, filosofiko zein literarioetatik, onena da konparaziorik gabe. Oharkabe eta kontuan hartu gabe sartu zen munduan.

1752an, Abokatuen Kolegioak bere Liburuzaina izateko aukeratu ninduen. Postu horretatik ordain sari hutsa edo txikia jaso nuen, baina liburutegi zabal

baten agintaritzan eman zidan horrek. Orduan, Ingalaterraren Historia idazteko egitasmoa osatu nuen. 1700 urteko denboraldian zehar narrazio etengabea mantentzearen ideiak beldurtu egin ninduen, Stuart Etxearen iristearekin hasi nintzen, nire ikuspegiz nagusiki orduan hasi baitziren alderdien desfigurazioak. Aitortzen dut, bai, nire lanaren arrakastari buruzko itxaropenean optimista nintzen. Uste izan nuen neu nintzela gaurko botereari, interesei, agintariei eta herri mailako aitziniritzien oihuei, denei batera, jaramonik egin gabeko historialari bakarra; eta gaia nire ahalmen guztiarekin bat zetorrenez, neurri bereko onarpena espero nuen. Baina nire etsipena lur jota geratzekoa izan zen: jazarria, erasia, gaitzespena eta, are gehiago, higuina jaso nituen. Ingelesek, eskoziarrek eta irlandarrek, whig eta toryek, elizgizonak eta sektarioek, pentsalari libreak eta erlijio zale amorratuek, abertzaleek eta gortesauak, denek amorrutan bat egin zuten Karlos I.aren eta Straffordeko Kondearen zoriez malko zabala isuri omen zuen gizonaren aurka; eta horien suminen lehen irakinaldiak amaituta, liburua ahantzita hondoratu egingo zela zirudien, are mingarriago zitzaidana. Millar jaunak esan zidan hamabi hilabetetan berrogeita bost ale besterik ez zituela saldu. Benetan, hiru erreinetan liburua jasan zezakeen letren edo kategoriaren aldetik kontuan hartzeko moduko gizonik bazenik apenas aditu nuen. Ingalaterrako gotzainburua, Herring doktorea, eta Irlandako gotzainburua, Stone doktorea, bakarrik salbuetsi behar ditut, bi salbuespen arraro diruditelako. Goratutako bi gotzain horiek mezuak bidali zizkidaten, bakoitzak bere aldetik, gogogabe ez nendin.

Aitortzen dut, hala ere, gogogabetua nengoela, eta Frantzia eta Ingalaterraren arteko gerra orduan lehertu izan ez balitz, seguru bietatik lehen erresumaren hiri probintzial bakarren batera erretiratuko nintzela, neure izena aldatu, eta ez nintzela inoiz ere itzuliko neure jaioterrira. Baina egitasmo hori orduan aurrera eramanez ezinez eta hurrengo liburukia aurreratu samarra zegoenez, kemena hartu eta jarraitzea erabaki nuen.

Tarte horretan Londresen, beste lantxo batzuekin batera, Erlijioaren Historia Naturala eman nuen argitara. Sarrera publiko ilun samarra izan zuen, Hurd doktoreak horren aurka warburtondar eskolaren ezaugarri diren erretxina intolerante, harrokeria eta zakarkeria guztiarekin idatzi zuen panfletoa salbu. Panfletorik horrek kontsolamendu zertxobait eman zidan, bestela axolarik gabe geratutako nire lanarentzat.

1756an, nire lehen liburukia erori zenetik bi urtera, Historiaren nire bigarren liburukia argitaratu zen, Karlos I.aren heriotza unetik Iraultzarainoko garaia hartuz. Lan honek whigei atsekabe gutxiago eman zien, eta hobeto hartua izan zen. Ez zuen berak bakarrik gora egin, bere zoritxarreko anaiari ere horretan lagundu zion.

Nahiz esperientziak erakutsi zidan whig alderdiak, bai politikan bai literaturan, leku guztiak eskaintzeko ahalmena zuela, bi Stuart lehenen erreinaldiei

buruz gehiago istudiatzeak, irakurtzeak eta gogoeta egiteak ehun aldaketa baino gehiago egitera behartu baninduten ere, aldaketa horiek guztiak osorik tory alderdiaren aldekoak ziren, hain bainengoen urrun whigen zentzugabeko deiadarrei amore ematetik. Ez du inolako zentzurik garai horren aurretik Ingalaterrako konstituzioak askatasun ordena erregularra osatzen zuenik pentsatzeak.

1759an, Tudor Etxearen Historia eman nuen argitara. Lan horren aurkako oihua bi Stuart lehenen Historiaren aurka egindakoaren ia parekoa izan zen. Elisabethen erreinaldiari zegokiona bereziki asaldagarritzat jo zuten. Baina ordurako erokeria publikoaren inpresioen aurrean sentiberatasunik ez nuen, eta Edinburgoko neure erretiroan, bake osoan eta atsegin handiz, segitu nuen Ingalaterrako Historiaren lehen-lehen aldia, bi liburukietan, bukatzen. 1761ean eman nituen argitara, nahikoa arrakastarekin, nahikoa soilik.

Neure idatziek babesgabeko gorabehera asko izan arren, aurrera egin zuten hala ere, eta liburu saltzaileek emandako egiletasun dirua Ingalaterran ordura arte ezagututakoa baino askoz handiagoa izan zen; independente bakarrik ez, aberats ere bihurtu nintzen. Eskozia neure jaioterrira erretiratu nintzen, sekula gehiago handik ez irteteko erabakiarekin, eta ezein handikiri inoiz ezer eskatu gabekoaren, eta adiskidetasun proposamenik egin izanaren pozarekin. Berrogeita hamar urtetik gora nituenez, pentsatu nuen bizitzan geratzen zitzaidan denbora guztia filosofiaren alorrari ematea, eta, orduan, 1763an, Hertfordeko Kondearen gonbidapena jaso nuen —nahiz harekin ordura arte harremanik ez izan—, Parisen izango zuen enbaxadan lagun niezaion, epe laburrean enbaxada idazkari izendatuko nindutenaren perspektibarekin kargu horren betebeharrak bete nitzan. Nahiz eskaintza hori erakargarria izan, hasieran ezezkoa eman nuen, handikiekin loturak izaten hastea ez bainuen nahi, eta Pariseko bizimoduaren fineziak eta plazerrak ez ziratekeelako atsegingarri izango neure adineko eta izaerako pertsonarentzat. Baina, Hertford Jaunak gonbidapena errepikatu egin zidanez, onartu egin nuen. Motibo guztiak nituen, bai atseginaren aldetik bai interesaren aldetik, neure burua zoriontsutzat jotzeko jaun noble horrekin egindako erlazioarekin, eta, ondoren, baita bere anaia Conway Jeneralarekin ere.

Jokaeren (moduen) efektu bitxiak ezagutu ez dituenak ez du inoiz irudikatu ahal izango Parisen kondizio eta maila guztietako gizon-emakumeek egin zidaten harrera. Zenbat eta gehiago urruntzen nintzen gehiegizko adeitasunetik, orduan eta gehiago larritzen ninduten. Badu, hala ere, gauza atsegin bat Parisen bizitzeak: pertsona zuhur, jakintsu eta adeitsu askoren konpainia, munduan beste inon ere baino zabalagoa. Behin batean pentsatu nuen bizitza osorako bertan geratzea.

Enbaxada idazkari izendatua izan nintzen, eta, 1765ko udan, Hertford Jaunak utzi egin ninduen, Irlandako Loktenente Jaun izendatu zutenaz. *Char-*

gé d'affaires izan nintzen Richmondeko Dukea, urtearen bukaera aldera, iritsi zen arte. 1766aren hasieran, Paris laga, eta ondoko udan Edinburgora joan nintzen lehengo asmo berarekin; hau da, erretiro filosofikoan ezkutatzeko asmoarekin. Leku horretara ez nintzen alde egindakoa baino aberatsago itzuli, baina bai diru askoz gehiagorekin eta errenta askoz ere handiagoarekin, Hertford Jaunaren adiskidetasunari esker. Eta desiratzen nengoen probatzeko ea beharrik gabe egoteak zer produzi zezakeen, aurretik premian egotearen esperientzia egina nuenez. Baina, 1767an, Conway jaunaren gonbidapena jaso nuen, Ministro-orde izateko, eta gonbidapen horri ezin nion ezetik esan, gonbidatzailearen izaera eta Hertford Jaunarekin nituen harremanak gogoan hartuz. Edinburgora, 1769an, oso aberats itzuli nintzen (urteko mila liberako errenta neukan), osasun onarekin eta, urteak gora pixka bat jota izan arren, neure lasaitasunaz gozatzeko eta nire ospea handitzen ikusteko perspektibarekin.

1775eko udaberrian, erraietako gaixotasun batek jo ninduen, hasieran inolako kezka larririk eragin ez zidana, baina gerora, neuk sumatzen dudanez, hilkor eta sendaezin bihurtu dena. Orain uste dut amaiera azkarra izango dela. Nire gaixoaldian min oso gutxi sufritu dut eta, arraroagoa dena, neure pertsonaren beherakada handia gertatu arren, ez dut sekula neure adorea, momentu batez ere, lur jota izan; hain da egia hori, neure bizitzako garai bat seinalatu behar izango banu, aukeran berriro pasatzeko azken garai hori seinalatuko nuke. Estudiorako beti izan dudan kemen bera dut gaur ere, eta alaitasun bera lagun artean. Bestalde, uste dut hirurogeita hamabost urteko gizon bat hiltzen denean, urte gutxitan libratzen dela gaixo izatetik. Eta nahiz zantzu ugari izan nire ospe literarioa, azkenean, distira gehiagorekin gora doala ikusteko, banekien urte gutxi izango nituela horretaz gozatzeko. Zaila da bizitzatik aldenduago egoten ni orain nagoena baino.

Honako hauxe orain neure pertsonaren historia bukatzeko. Ni naiz, edo hobe, ni nintzen (hau da orain neure buruaz hitz egiteko erabili behar dudan modua, neure sentimenduez gehiago hitz egiteko ausardia ematen didana) izaera biguneko gizona, neure buruaren jabea eta tankera ireki, sozial eta alaia izan duena, adiskide izateko gauza, baina etsaigora gutxi emana eta grina gutietan moderazio handikoa. Ospe literarioaren desioak ere —nire grinarik gailena— ez zuen inoiz nire izaera garrastu, nire aurkako gauza asko gertatu arren. Jendartean ez nintzen desatsegina izan, ez gazteentzat, ez axolagabeentzat, ezta jakintzara edo literaturara emandakoentzat ere. Eta emakume zintzoen konpainian atsegin berezia izaten nuenez, ez nuen motiborik beraiengandik jasotako tratua deskontentu egoteko. Hitz bakar batean esateko, nahiz alor bateko edo besteko ohore handiko gizon askok kalumniaz kexu izateko arrazoirik izan duten, ni horrek ez nau harrapatu, eta ez dut horren haginkada kaltegarriarik nozitu. Erlijio eta gizarte fakzio askoren amorrua begirunerik gabe jasan arren, bazirudien, nire alderako, ohiko haserrea desarmatua gera-

tzen zela. Nire lagunek ez zuten sekula premiarik izan nire izaeraren eta jokabidearen alderdi bat ere justifikatzeko. Fanatikoak bakarrik —hala uste dugu—, nire desabantailarako edozein kontu asmatu eta zabaltzeko prest zeuden, baina ez zuten inoiz bat bera ere topatu itxura antzekoa izan zitekeena. Ezin dezaket esan harrotasunik ez dagoenik neure buruaz egiten dudan hileta hitzaldi honetan, baina ez dut uste oker nabilenik. Eta hau gertaera kontua da, erraz argitua eta finkatua dena.

Apirilak 18, 1776.